

# Haize Goikoetxea eta Izaskun Ugarte

## Ezkutuko sufrimendua

Mikel Goikoetxea, Txapela, GALEk hil zuen 1983an. 25 urteren ondoren, bere senideekin bildu gara berriz ere, denbora horretan bizitakoaz hitz egiteko. Gainditu ezin duten barne mina azaleratzea ez da samurra izan beraientzat: “Askotan atzera egin behar da aurrera jotzeko”.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Lander Arbelaitz



Bilbon bizi dira, egun, Haize Goikoetxea eta Izaskun Ugarte, “Txapela”ren senideak.

1983KO ABENDUAREN 28AN Mikel Goikoetxea hil zuen GALEk bere bi alaba txikien eta bikotearen aurrean, Donibane Lohizunen. Denentzat “sekulako kolpea” izan zela idatzi du berriki Joxe Mari Ostolazak orriotan. Txapelaren bizitza ezin da ulertu iraultzailearen esentzia konprenitzen ez bada. ETAn sartu zen, baina hori “koiunturala” zela aitortu zion bikoiteari. “Herriagatik hil da” esan zigun Izaskun Ugartek duela 25 urteko elkarriketan, eta halaxe dio orain

ere. Herri hori aldatu egin dela garbi du baina: “Lehen eraiki egiten zen, begira ikastolak”.

Aitaren heriotzaren zama alabei ez igortzen saiatu da Izaskun, eta pozik da orain hartu duten bidearekin, baina ez da erraza izan: “Horri buruz ezin duzu hitz egin, horrela, barre eginez”. Gorrotoz hondoratu zitzairela zauria, eman lezake. Tiro bakar baten morrontzan geratu zirela, uler liteke. Baina barne minarekin bizi-tzen ikasi dutela esan digute.

Haize Goikoetxeak, Mikelen alabetako batek, aita ezagutzeko bidaiari heldu dio *Itsasoaren alaba* dokumentalaren bidez: “Konturatu naiz jende askok nire sentimendu berdinak bizi izan dituela. Azaleratu egin behar dira, eta gizartean hitz egin, ikusteko zer egingo dugun hemendik aurrera; zer-bait aldatu beharra dago”. Josu Martinezek zuzendu du hain urrun ez dagoen memoria berreskuratzeko saio hau, GITE-IPESen beka bati esker.

# “Hau dena konpondu arte ez dugu ezer jakingo”

Irudipena daukat Izaskunek, nahiz eta gertatutakoaz kontzienteago izan, gaindituago duela Haizek baino Mikelen heriotza. Zergatik hori?

**Izaskun Ugarte:** Gainditu hitza ez dut erabiltzen gauza hauetan. Barkamen hitzak zentzurik ez duela uste dudana bezala. Horrekin bizi behar dugu.

**Haize Goikoetxea:** Ados nago, hau ez dut inoiz gaindituko, ezin da gainditu, beti egongo da hor.

Haize, dokumentalean diozu gauzak “ezkutatu” egin dizkizutela, edo behintzat ez dizkizutela esan. Zer arrazoi dago horren atzean?

**Haize:** Ezkutatu hitza erabiltzen dudanean esan nahi dut sentimendu asko ezkutatu digutela. Esan izan didatena da “bere begiak dauzkazu” eta horrelakoak, baina gainerakoan inork ez dit gauza txikienik ere kontatu, amak izan ezik. Gauza txikiak dira aita nolakoa zen erakusten dizkizutenak. Hori, beharbada, ez zen aterako dokumentalik gabe.

Ezustekorik hartu al duzu? Espero ez zenuen zerbait...

**Haize:** Amak transmititu didan ideia orokorra bete da. Mikel iraultzailea, erromantikoa, alaia... Beste gauza batzuk ere deskubritu ditut, ETako kide bezala egindakoak eta abar. Horietaz ez dugu inoiz hitz egin eta ez zaizkit gehiegi interesatzen.

**Izaskun:** Berak esaten zidan “nire esentzia ez da ETakoa izatea, zirkunstantzia bat da, nire bizitzaren zentzua ez da hori”. Ezin zen hori izan, bestela oker egongo zen, nahiz eta denbora luzea dedikatu horri...

**“Esan izan didatena da ‘bere begiak dauzkazu’ eta horrelakoak, gainerakoan, gauza txikienik ere ez”**

HAIZE GOIKOETXEA

**Haize:** ...eta horregatik hil.

**Izaskun:** Baina bere herrigatik hil zen. Ez dakit nola esplikatu.

Hala ere, gogorra izan behar du hortaz ohartzea: armak, entrenamenduak...

**Haize:** Bai bai, niretzat gogorra izan da. Esatea hemen ibili zen eta guardia zibil hori hil zuen... Mitxelekin [Sarasketa, Goikoetxearen kidea] egindako elkarrizketatik gaizki bueltatu nintzen, ez nengoen prest eta ez nuen imajinatzen. Zaplasteko bat izan da niretzat, bete betean.

Gauza batzuk barruan eramatea ez da samurra izango... Zuk, Izaskun, ez duzu inoiz beharra sentitu zure alabei den-dena kontatzeko?

**Izaskun:** Nik beharrik ez dut sentitu, hori aitortu behar dut, zerbait intimo bezala geratu zait. Gauza asko ezin dira transmititu. Ideologia transmititu dezakezu, baina pertsona baten samurtasuna... nola transmititu hitzetan?

(...)

25 urte nituen eta bi alaba, urtebete-koa bata eta lau urte egin berriak bestea. Aurrera egin behar duzu. Ez nuen eurengan zamarik jarri nahi, ez dakit nola esan... ez da erraza! Horri buruz ezin duzu hitz egin, horrela, barre egiten. Nik ezin nien nire alabei dena eman, baina beraiek gai iza-

Ama-alaba elkarrizketaren une batean, *Itsasoaren alaba* dokumentala estreinatu eta hortik egun batzuetara.





tea bide hori topatzeko, horrek asko pozten nau; horrelako pertsonak egin behar nituen eta uste dut orain eman duten pauso hau zerbait ondo egin dudana seinale dela.

Lehen aldia izan zen gorpua erraustu eta Bidasoan zabaltzen zela. Konturatu naiz horrek garrantzi handia izan zuela.

**Izaskun:** Badakizu nola bizi izan dudana pelikularen kontu hau? Omenaldi haren bigarren momentua bezala. Hura oso hunkigarria eta benetakoa izan zen, jende askok orduan deskubritu zuen Mikel. Zeren eta bera askotan atera izan zen telebistan, ez dakit zenbat milioi ematen zituztela pistak lortzeko eta abar, horrelako kontuekin matxakatzen zuten. Baina hil zutenean egunkarian atera ziren bere idatziak eta beste gauza asko, eta errausketarekin jendeak pertsona deskubritu zuen. Bada, pelikularekin antzeko zerbait gertatu dela uste dut.

Duela 25 urte ARGIAK egin zizun elkarriketan "irabaziko dugu" eta horrelakoak askotan aipatzen dira, beste hizkera bat da, bere garaikoa. Zer ikusi du gaur egungoarekin?

**Izaskun:** Oso diferentea da, baina gauza askok ez du zer ikusirik e! Dena aldatu da, noiztik ez goaz, eta zorionez, ETako kide baten hiletara? Analisiak egitean gauza guztiak ikusi behar dira: enfrontamenduak askoz ere *cuero a cuerpo*-ago ziren guardia zibilekin, interbenitzeko moduak... Gaur egun beste modu batean egingo dira gauzak, ni ez naiz horretan sartzen, baina orduan



askoz garbiago zegoen, Mikelek esaten zuen: "Ez nuen uste 27 urte beteko nituenik!", hori ea zeinek esaten duen gaur egun!

Mikel herriagatik hil zela diozue, borrokan, baina non geratu da herri hori? Babes hori?

**"Dena aldatu da, noiztik ez goaz, zorionez, ETako kide baten hiletara?"**

**Izaskun Ugarte**

**Izaskun:** Batek daki, asko aldatu dira gauzak. Ni ez naiz ETako kide izan eta ez dut ibilbide hori baloratuko, baina bai esango dut hau: gizartean garai batean guk eraiki egiten genuen, ikastolak eta horrelakoak, gaur egun ez dugu eraikitzen eta hori da gure lana. Hori ez du ETak egin behar, hori guk egin behar dugu, eta ez bakarrik Parlamentutik. Gu ere aldatu gara, ez

gaude ezer egiteko prest eta ez badago instituzioek babesturik gutxiago. Ematen du Mikelen izateko era hori desfasatua dagoela...

Euskara klaseak ematea?

**Izaskun:** Bai, eta austeroa izatea. Gaur dena da kontsumitzea, zerbait egin dugu txarto.

Biktimez asko hitz egin da azken urteetan, ETaren biktimen inguruan diskurtso oso bat eraiki da. Zer balio du horrek zuentzat?

**Izaskun:** Nik uler dezaket jende horren mina, onartzen ez dudana da politizazioa. Pentsa, 25 urte pasa dira eta guk ez dakigu Mikel nork hil zuen, ez da inor kartzelan bera hiltzeagatik, ez da ezer argitu... Eta jende horrek, aldiz, eskatzen du ez dakit zenbat urterako kartzela. Azkenean bide hori ez da zuzena, politikoa da eta interes batzuei begira eginda dago. Beste batzuk, berriz, hemen gaude.



**TALLERES MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.  
Ezilego Poligonoa • Zikufaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • [info@talleresmitxelena.com](mailto:info@talleresmitxelena.com)

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

ARGIA, 1984ko otsailaren 5a (1.003 zk.)

## Izaskun Ugarte: "Ezin da atzera egin"

**Jende askoren ahotan ibili da zure balorea. Inork ez zuen espero Txapelaren emazte gazteagandik holakorik.**

Bai, aktibista bat besterik ez zela esaten zen. Baina zer da aktibista bat? Metrailetero bat zarela uste du jendeak, metraileta hartu eta aurrean harrapatzen duzun goardia-zibil guztia garbitzen duzula. Eta hori bakarrik ez da (...).

**Ez al duzue pentsatu izan zuen lan guztia alferrikakoa dela?**

Ziur ikusten dut irabaztea posible dela, ez da posible galtzea (...) Une batzuk oso latzak izaten dira, mugimendua nola doan ikusten duzu,

jendea... erreforma sartu da nolabait. Mikelek esaten zuen: "Egoera aldatu da, gauzak askoz zailagoak dira eta beste aldean gauzak horrela ikusten ditut...". Baina sekula baino beharrezkoagoa ikusten duzu jarraitzea. Mikel hil dute gainera, ez da posible atzera egitea, aurrera egin behar dugu baina bukatu arte.



**Zure etorki-zuna errefuxiatu-rik bizitzea da.** Errefuxaturik ere izugarritzko lana egin dezakezu. Hor duzu Seaska, hor dituzu gau eskolak (...) Baina ez, zenbait jendek beste gauzak hartzen ditu. Badakizu? Batzuk frakasatu bezala ikusten dira, beren protagonismoa galdua da (...).

**Bi haur dituzu, Hodei eta Haize. Nola pasatu dute trago txar hau?**

Lau urte ditu Hodeik eta Bilbon zen momentu hartan. Ekarri zuten eta esan zidan: "Baina non da Mikel, noiz etorriko da?" eta esan nion: "Baina Mikel ez da etorriko, Hodei (...) Borroka batean gara eta momentu batean hau gertatu zaio, eta borroka hau gure Herriagatik da".



Izaskun eta Haize duela 25 urteko elkarriketan. Ezkerrean: Izaskun Ugarte Txapelaren errautsekin, Jose Manuel Pagoaga Peixoto ondoan duela.

[www.argia.com/argia-astekaria](http://www.argia.com/argia-astekaria) helbidean, Iñaki Zubiondo eta Xalbardinek 1984an egindako elkarriketa osoa irakurgai.

**Ez duzue esperantzarik inoiz argituko denik gertatutakoa?**

**Izaskun:** Nik garbi daukat, ez dugu jakingo zer gertatu zen historia zati honi *karpeta* eman arte, eta urteak pasako dira.

**Haize:** Izango da ezer jokoan ez dagoenean.

**Argituko balitz, horrek itxi gabeko zauri bat sendatzen lagunduko luke?**

**Izaskun:** Bai, garrantzitsua da hori. Baina ez dakigu ezer. Egon den kasurik larrienetakoa Lasa eta Zaballarena izan da. Haien gurasoak urteetan ezer jakin gabe egon ziren: zer tratamendu jaso dute? Eta beste batzuk dira hemen biktimarik handienak. Hori ezin da egin, ez da justua sufrimenduaren aldetik. Zer gertatu zen jakiteko eskubidea daukagu, baina nori erreklamatuko diogu? Nork esango digu? Inork ez. Eta inpotentzia berbera sentitzen du torturatua izan denak, adibidez.

Azkenean denok gaude pareta baten aurrean.

**Noizbait instrumentalizaturik sentitu zarete?**

**"Zer gertatu zen jakiteko eskubidea daukagu. Baina nori erreklamatuko diogu? Nork esango digu? Inork ez"**

**IZASKUN UGARTE**

**Haize:** Ez, inork ez digu eskatu ezer egiteko biktimen senide bezala edo horrelako gauzaren bat.

**Izaskun:** Guk ez ditugu beste biktimak dituzten mugimendu horiek, ez daukagu asoziaziorik.

Dokumentala estreinatu da, pentsatzen dut azken aldian horren bueltan ibili zaretela. Baina orain zer?

**Haize:** Lehen nire bidaia pertsonala zen, baina orain, jendearekin hitz egin ostean, ikusi dut behar bat dagoela oraindik gizartean eta ikusi dut zer sufrimendu utzi duen honek guztiak. Hasi behar dugu pentsatzen nola konpondu hau, eta hasi behar dugu alde humanotik, barrutik. Ordua da hausnarketa txiki bat egiteko. Dokumentalarekin konturatu naiz jende askok nire sentimendu berdinak bizi izan dituela.

**Izaskun:** Nik gauza asko bizi izan ditut eta bizitza honetan bidea topatzeko askotan atzera begiratu eta hausnartu egin behar da. Ez da ahaztu behar zein izan den abiapuntua, askotan atzera egin behar da aurrera jotzeko... uste dut hori behar duela Euskal Herriak. ■

[www.argia.com/multimedia](http://www.argia.com/multimedia) helbidean, elkarriketaren bideoa.